

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Gero arte



ARITZ GALARRAGA


Nire hilerririk maiteena ez da jada existitzen”, diosku Mariana Enríquezek *Alguien camina sobre tu tumba* liburuan; are ez duela inoiz ikusi. Eta halere hari buruz ari da, munduan zeharreko hainbat hilerritara egindako bisitak jasotzen dituen lanean –museo batetik hilerri desagertuan egondako hezur bat lapurtzeko prozesua azaltzen baitugu; izena ere jarri zion, François-. Munduko hilerririk ederrena, nonbait, Punta Arenas, Txilen dago. Munduko hilobi-eskulturarik ederrena Bartzelonako Poblenou auzoko hilerrian. Beldurra, baina, bakar batean sentitu izan du, mordo bat bisitatu ondoren, 2019an, hain zuzen Donostian. Marko inkonparablean hiru hilerri bisitatu zituela esplikatzen digu, Ingelesena, Igeldo, eta Polloekoa; eta bi gauza aipatzen ditu euskaldunetz: batetik, oso erakargarriak garena. Ondo. Bestetik, ez dutela desgrazia eta injustiziekin beldurrezko ipuinik egiten, edo egiteko gaitasunik, beste latitude batzuetan gertatzen den bezala. Eta jasotzen du Igeldoko hilerrietik, Sarako elizan, antza Axularren manamenduz, kokatzen nuen esaldia: Oren guziek dute gizona –eta emakumea, noski– kolpatzen, azkenekoak du hobirat egortzen.

“Laister esango dute zuretzat / orain esaten dutena neretzat / il zan”. Hori da aitaren aldetiko aitonaaren jaioterrira joan eta hilerrian ikusi nuen lehen gauza –bigarrena izan zen hilobien erdiak nire abizena daramala; beste erdia dira Sarasola-. Baina esan zuen Iñaki Seguiolak: bada garaia gure hilerrietako mozkeria honekin bukatzeko, bada garaia hildakoen ahotik itsuskeria horiek kentzeko, bada garaia hildakoen bihotzetan, hildakoen ahotsetan maitasun eta esker on pixka bat jartzeko. Seguiolak proposatzen zituen “ondo bizi”, “barre asko egin”, “lepo jo”, “ez izan presarik”, “bake gehitxo gauza onerako”, “ez du merezi, hemen asko aspertzen gara” eta gisakoak idaztea atarrietan. Hildakoez gure hilerrietan ohikoa duten moduan agurtuko nahiz momentuz neroni: gero arte. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“DONOSTIAKO METROAREN OBRETAN NAHI DUTENA EGITEN DUTE”

IMANOL, DONOSTIAKO METROAREN LANETAKO KAMIOILARIA

Kostuak murrizte aldera, bere nagusiak kamioiaren gainkarga bikoiztera behartzen zuela salatu zuen 2019an, eta langilearen eta errepideko gainerako gidarien segurtasuna arriskuan jarri zuela. Geroztik presioak eta mehatxuak jasan dituela kontatu du. “Gero eta diru gutxiago dago metroaren proiektua aurrera ateratzeko. Eta nor da kate horretako azken gizajoa? Gu, langileak. Obra hori guztion diruarekin egiten ari dira, eta gutxieneko arau batzuk bete behar lituzke. Baina hemen nahi dutena egiten dute”. **BERRIA (2021/05/26)**

